

# EUSKO JAURLARITZAREN KULTUR EKINTZA ATZERRIAN (1938-1955) URUGUAIKO KASUA

*Xabier Irujo Ametzaga*

*Marceau kaleko jarraibideak (1938-1940)*  
*Europatik Ameriketara. Ordezkaritzak*  
*Euskal kultura Ameriketan*  
*Euskal kultura Unibertsitatean*  
*Euskara atzeritik suspertuz*  
*Kultura eskubideak*  
*Eusko Ikaskuntzen Biltzar Nagusiak*  
*Eztabaida*

## ABSTRACT

Lau izan ziren kultur arloan Jaurlearitzako helburu nagusiak atzerrian, alegia, euskararen sustapenerako programaren garapena, nagusiki, itzulpena suspertuz euskara osatuaren proiektua suspertzea; Euskal Herrian mende hasieratik euskal kultura zabaltzeko antolatutako ziren Eusko Ikaskuntzen Biltzar Nagusiak erbestean ere ahalbidetzea; euskal kultura arloko aldizkariak eta liburuak argitara ematea eta zabaltzea, bai eta amerikar prentsan euskal kulturaren inguruko artikuluak plazaratzea eta, azkenik, aurreko xedeak gauzatzeko eta kultur arloan Ameriketako herrialde ezberdinetan egiten zena koordinatzeko eta zentralizatzeko, Jaurlearitzak kudeatutako kultur erakunde bat martxan jartzea. Xede politikoekin gertatutakoaren ildoa, erbestea luzatuz joan zen heinean 1938an Parisko Marceau kaleko ordezkaritzan finkaturiko kultur ekintzako ildo nagusiak eraldatu behar izan zituen Jaurlearitzak.

\*\*\*\*\*

## *Marceau kaleko jarraibideak (1938-1940)*

*Es hora de que seamos nosotros quienes interpretemos nuestra historia<sup>1</sup>. 1937ko ekainaren 19an garaitu zuten Bilbo faxistek. Aldiz, bazuen jada 1936an Jaurlearitzak Parisko ordezkaritza Rafael Pikabearen eta Eugene Goyenetcheren ardurapean martxan. Eusko*

---

*· Center for Basque Studies. University of Nevada, Reno*

<sup>1</sup> Jose Antonio Agirrek Bingen Ametzagari idatzitako gutuna, New York, 1942ko uztailak 16.

Jaurlaritzak 1936ko guda amaitu aurretik Kataluniara jo bazuen ere, 1938ko udaberrian bertan, nagusiki Terueleko garaipenaren ondoren, erbesteko bidea hartu beharra zegoela gero eta ageriagoa zen. 1938ko udaberriko ofentsibaren ondoren, apirilaren 15ean Katalunia eta Valentziaren arteko komunikazioa moztea lortu zuten Francoren indarrek. 1938ko neguan Katalunia guztiz inguratuta, Parisera hartu zuten bidea Jaurlaritzako zenbait kidek bertan oraindik motza aurreikusten zen erbesteari aurre egiteko. Azkenik, abenduaren 23an agindu zuen Francok Bartzelona garaitzeko azken eraso. Orduko dugu Parisko Marceau kaleko eraikina Jaurlaritzaren egoitza nagusia.

1938ko azaroan hartu zuen Ametzagak Parisko bidea Agirrereren kotxean Justizia saileko idazkari gisa. Algortakoaren eginbeharren artean, bi ditugu hemen aipagarri. Batetik, Britainia Handian babesturik zeuden haur kolonien ikuskaritza lanak burutzea eta sorospena lortzea eta, bestetik, lantalde baten baitan, 1936 eta 1937 bitarte *Zuzentza ta gogo-lantze zaingoa* kultura eta justizia saileko ekimenei lotuta, hezkuntza eta kultura arloko plangintza bat osatzea. Izan ere, 1936 eta 1937 Eusko Jaurlaritzako *Zuzentza ta gogo-lantze zaingoa* kultura saileko zenbait kide ohi bildu ziren Parisko Marceau kaleko egoitzan proiektu hauek atzerrian gauzatzeko asmoz. Hauen artean Jesús María Leizaola justizia sailburua dugu, Francisco Basterretxea Eusko Ikaskuntzako kidea eta diputatu ohi<sup>2</sup>, Joxe Migel Barandiaran ikerlaria, Julio Jauregi diputatu ohi eta Kataluniako ordezkari izandakoa, Bonifacio Etxegarai<sup>3</sup> Euskadiko Kultura Kontseiluko kidea eta Bingen Ametzaga lehen hezkuntzako zuzendari ohi eta Jaurlaritzako justizia saileko idazkaria.

Oso helburu praktikoa zehatzak landu zituen kultura arloan talde tinkotu honek. Izan ere, 1936ko gudak bertan behera utzitako zenbait proiektu berrartzea zuten helburu nagusia, oroz gain euskal kulturaren zabalpena eta dibulgazioa suspertzeko erakunde bat osatu eta euskaraz ikerketa lanak zein beste mota bateko idazkiak landu ahal izateko idazle batek behar zituen erreferentzia liburuak osatu. Hona hemen talde honek Jaurlaritzako Parisko egoitzan landutako aspektuen artean arreta berezia merezi izan zutenak:

1. Aldizkari espezializatuen eta ikerketa institutuen sorrera suspertuz euskal kultura arloko azterketari eta dibulgazioari ekin. Jaurlaritzako proiektuaren helburu honi atxikiz dugu, urteak pasa, Uztaritzeko *Intxausti-Baita* etxean Manuel Intxautik, Joxe Mari Lasartek, Telesforo Monzonek, Manuel Sotak, Pierre Laffittek, Louis Dassancek edota Joxe Migel Barandiaranek suspertutako euskal kultura mugimenduaren eskutik, *Gernika*, *Ikuska* edota *Eusko Jakintza* aldizkarien eta kultura erakundeen sorkundea. Nabaria da bestalde aurreko ikerlariak eta politika gizonak Jaurlaritzarekin zuten uztardura.

---

<sup>2</sup> Francisco Basterretxea Zaldibar (1886-1975) Bermeon jaio zen. Zuzenbidea ikasketak burutu zituen. Eusko Ikaskuntza *Sociedad de Estudios Vascos* elkarte bokalari izan zen. Gipuzkoako diputatua eta *Tribunal de Garantías Constitucionales* epaitegiko kide. 1936an Frantziako bidea hartu zuen eta 1942an Alsina taldearekin Argentinara abiatu zen familiarekin atzerriratua. Eusko Jaurlaritzako ordezkari izan zen Argentinan.

<sup>3</sup> Bonifacio Etxegarai Korta (1878-1956) Zumaian jaio zen. Zuzenbidea ikasketak burutu zituen. Tribunal Gorenean egin zuen lan idazkari gisa. Zuzenbide foralean espezializatuta, anitz lan ditu arlo honetan. Euskaltzaindiko kide dugu 1920an. "Euskal Erriko etxeen izenak" izenburua duen ikerlana aurkeztu zuen sartzeko, euskal oikonimiako lehen ikerketariko bat alegia. 1936 arte dugu Etxegarai Euskaltzaindiko Zuzenbidea saileko Autonomia batzordeko kide. Parisen urte batzuk eman ondoren Euskalerrira bueltatu zen. Durangon hil zen 1956an.

2. Euskal idazleak eta ikertzaileak beharrezkoak zituen erreferentzia eta dibulgazio lanak osatzea eta zabaltzea zen taldearen helburu nagusietariko bat. Haur Hezkuntzako sailean bideratutako testu liburuen itzulpenaren ildoan, Euskal Herriko entziklopedia bat burutzea zuten euskaraz idatzitako ikerketaren garapenerako ezinbesteko tresna. Francisco Basterretxea izendatu zuten entziklopediaren osaketaren arduradun. Ez zen aldiz, Europako garaipena bide, proiektua garatuko. Hala ere, Buenos Airesen sortutako Amerikako Eusko Ikaskuntza Institutuko buletina dugu ildo honetan susperturiko esfortzua. Izan ere, Francisco Basterretxea, Andrés Irujo, Bingen Ametzaga, Ildefonso Gurrutxaga edota Justo Garate ditugu, beste askoren artean, Marceau kaleko egoitzan Jaurlaritzaren kultura proiektuan modu batean edo bestean kolaboratutako lagunak ditugu. Ildo berean, Caracasko eusko etxean Bingen Ametzagak bultzatutako *Pro-Universidad Vasca* jardunaldi zikloa dugu adibide. Manuel Irujoren esanetan hura zen entziklopediako proiektuaren harian atzerrian bultzatutako ahalegin nagusien arteko bat, *le felicito a Ud. por el esfuerzo, el extraordinario esfuerzo de sus conferencias. Esa serie de conferencias forman una enciclopedia vasca. Pasé una nota a Urola para que diera a conocer el superlativo esfuerzo. (...) Tendríamos de tal guisa un extracto enciclopédico de nuestra cultura, de nuestra civilización, puesto de manera que no canse para hacer la obra de vulgarización que Ud. se propone con sus charlas. Hable Ud. con Ricardo Leizaola que sabe mucho de esto, es capaz de acometer cualquier obra de esta naturaleza y domina la técnica*<sup>4</sup>.
3. Euskararen sustapenerako programa baten garapena. Erbesteko hizkuntza politika plangintza orokor baten baitan azertu behar dugu eusko etxeetan suspertutako euskara klaseen antolakuntza, izan ere, euskararen eta euskal kulturaren zabalkundea dugu bai guda garaiko zein erbesteko Jaurlaritzaren helburuen artean nagusienetariko bat. Aztertuko dugun bezala, eusko etxe ezberdinetan burututako *Euskaltzaleak* taldeen osaketa, euskara klaseen antolaketa edota euskara egunen ospakuntza, Jaurlaritzako ordezkarietzen eskuz eta hauen arteko koordinazioari esker burutu zen.
4. Eusko Ikaskuntzak guda aurretik antolatutako Eusko Ikaskuntzen Biltzar Nagusien antolaketa. Iparraldean bildutako 1948ko eta 1954ko Eusko Ikaskuntzen Biltzar Nagusiak aipatuko ditugu noski. Bietan dugu Jaurlaritzako zenbait kideen partaidetza zuzena zein Jaurlaritza beraren babes. Dagokigun kasuan Montevideoko Jaurlaritzaren ordezkarietako partaidetza zuzena eta kolaborazio estua aztertuko dugu. Bestalde, munduan zehar barreiatutako atzerriko euskal herritarren partaidetza koordinatzeko eta antolatzeko ezinbestekoa zen Jaurlaritzako ordezkarietzen inplikazio zuzena.
5. Itzulpenak suspertu. Jokin Zaitegi dugu erbeste garaian aipatu beharreko itzulpenaren lehen eragilea. Ez zuen aldiz Zaitegik maiz aditzera ematen den bezala Guatemalan isolaturik lan egin. Eguneroko harreman estuak izan zituen herrialdez herrialde, amerikar estatu ezberdinetan zein Euskal Herrian bertan ziren itzultzaile eta euskaltzaleekin Zaitegik. Eta, hemen ere, Jaurlaritzako ordezkarien bitarte jo zuen Zaitegik gehienetan kolaboratzaile eta laguntzaileen eske. Guatemalan argitara emandako *Euzko Gogoa* aldizkaria erbestearekin lotura estua du, izan ere eta aztertuko dugun bezala, Zaitegirekin batera, Ametzagak ere jaso zuen

---

<sup>4</sup> Manuel Irujok Bingen Ametzagari idatzitako gutuna, Paris, 1961eko abenduak 7.

Lehendakariaren eskutik Iparraldean kokatua egongo zen Jaurlaritzako Kultur Etxearen partaide izateko proposamena. Aztertuko dugun bezala, Ametzagak Uruguain buruturiko Shakespeareren *Hamlet* eta Juan Ramón Jiménez *Platero eta Biok* liburuen itzulpenak Uruguaiako ordezkariarekin sorreraz lotura estua zuen Montevideoko eusko etxeko *Euskaltzaleak* taldearen sorospenarekin burutu ahal izan zituen Ametzagak.

6. Euskal kulturaren dibulgazioa eta euskal kulturaren zapalketaren salaketa. Euskal gatazka politikoarekin batera, Euskal Herriko nortasuna, izaera eta gure herriaren eskubide historikoak eta kulturalak zein ziren jakitera ematea zuen helburu nagusi dibulgazioak. Uruguaiako erbesteari dagokionez, Jaurlaritzako ordezkariatzako kide gisa Ametzagak idatzitako 346 artikuluko kontserbatu dira guztira, gehienak euskal kulturaren arloko ezberdinei buruzkoak. Azken hauekin batera, 73 jardunaldiren berri dugu ia guztiak euskal kultura arlokoak. Azken honekin batera, euskarak eta, oro har, euskal kulturak diktadurapean jasaten zituen gehiegikeriak salatu zituen behin eta berriro Jaurlaritzak. Ildo honetan, aztertuko dugun bezala, aipu berezia merezi du Montevideon bildutako UNESCOko VII. Biltzar Nagusian Xabier Landabururen eta Santiago Onaindiaren eskutik Jaurlaritzak agertutako salaketa gogorra.

1938an hasi ziren Ameriketara abiatzen lehen itsasontziak. 1940an naziek Paris eta frantziar estatu osoa hilabete eskas batean garaitu ondoren, kaos administratibo sakon batean murgildu zen Londresko Euskal Kontseilua sortu arte Jaurlaritza. Kultura arloko ildo nagusiak guztiz eraldatu gabe, Ameriketara ihes egin zuten Jaurlaritzako kideek kontinente berrian saiatu ziren aurreko helburuei eusten. Izan ere, Bigarren Mundu Gudako gorabeherak eta Francoren naziekin izandako harremanak zirela, erbeste motz bati aurre egin behar zutela ustetan ziren gehienak.

### ***Europatik Ameriketara. Ordezkaritzak***

Enbaxadak ziren ordezkariatzak. Izatez, amerikar estatuetan Jaurlaritzaren ahotsa, izugarrizko lana suspertu zuten kultura arloan amerikar atzerrian. Ildo honetan, aipaturiko Parisko jarraibideen 6. puntuarekin bat dator Buenos Airesko ordezkariatzak Montevideoko ordezkariatzaren lana eta presentzia Uruguain eragitearren zein herrialde honetan Euskal Herriko kultura eta nortasuna erakustera emateko 1943an mahaigaineratutako Euskal Astearen proiektua. Esan bezala, Buenos Airesko ordezkariatzako proiektua dugu hau jatorrian. Halarik ere, Argentinako ordezkaria zen Ramón María Aldasorearen lehen eginkizuna Montevideoko *Euskal Erria* eta *Centro Euskarro Español* eusko etxeen elkartasuna eta lankidetzaz lortzea izan zen. 1943ko maiatzaren 9an *Euskal Erria* elkarteko 31. urteurreneko ospakizunak zirela eta burutu zituen Montevideoko ordezkariatzaren bitartez lehen kontaktuak Uruguain Aldasorok. Ekainaren 22an zabaldu zen Buenos Airesko *La Nación* egunkarian Montevideoko *La Gran Semana Vasca* euskal astearen ospakizunaren berria eta, uztailaren 1ean dugu Montevideoko eusko etxeko *Euskal Erria* aldizkarian ekitaldiaren lehen aipamena. Uztailaren 27an, Euskal Asteko behin behineko egitaraua jakitera ematearren bildu zen Aldasoro *Euskal Erria* elkarteko batzorde eragile berriarekin.

Buenos Airesko eta Montevideoko ordezkartzen proiektua dugu beraz urriaren 30 eta azaroaren 15 bitarte luzatuko zen Euskal Astea. Artikulu honen mugak arras gaintitzen dituen detaileetan murgildu gabe, izugarria dugu Euskal Astearen kutsu kulturala. Jardunaldiak, erakustaldiak, kontzertuak, jaialdiak eta mota guztietako ekitaldi kulturalak, bai eta Txiletik eta Argentinatik etorritako taldeak Montevideoko eusko etxeetan bildu zituen Euskal Asteak. Guztiz ezinezkoa zen irismen honetako ekintza Jaurlaritzako ordezkartzen koordinazio eta antolaketa lanarekin kontatu gabe burutzea. Izan ere, hamabost eguneko programa amaitu ondoren, hamabi urte luzeko kultura arloan zeharo zukutsua dugun Montevideoko ordezkartzenaren ekimen multzo zabalari ireki zizkion euskal asteak ateak. Aztertuko dugun bezala, Parisko Marceau kaleko egoitzako helburuei zuzenean lotutako ekintzak bideratu zituen zuzenean edota zeharka Montevideoko ordezkartzak, beti ere Ameriketako zein Londresko eta Parisko ordezkartzekin harremanetan eta, noski, Lehendakartzen kultur arloko ekimenen ildoan eta babespean.

### ***Euskal kultura Amerikan***

Euskal kultura atzerrian zabaltzea dugu esan bezala erbesteko ordezkartzen kezka nagusienetariko bat. Eusko etxeetan euskal hizkuntza, euskal kultura bai eta diktaduraren gehiegikerien aurrean Euskal Herriko eskubide kulturalen eta historikoen inguruko ardura sorrarazteko bai eta atzerriko gobernuen sorospena lortzeko hamaika ekimen antolatu ziren herrialde guztietan. Uruguairi dagokionez, Euskal Asteko ekitaldiak amaitu eta beste zenbait programa martxan jartzen hasi ziren ordezkartzen, *Euskal Astearen zurrunbiloaren ostean hau hilik geratu da, horrela segi ez dadin kaizu handiko proiektu batzuk bultzatzeko asmoa dut*, aditzera eman zion Joxe Mari Lasarteri Ametzagak<sup>5</sup>. Lau esparrutan multzoka ditzakegu ordezkartzen gogoan zituzten ekintza kulturalak:

1. *Euskal Erria* eusko etxean euskal kultura eta euskara zabaltzeko kultura batzordea osatzea
2. Montevideoko Euzkadi Irratia sortzea.
3. Eusko etxean abesbatza eta dantza zein txistu taldeak osatzea.
4. *Euskal Erria* elkarte eta Errepublikako Unibertsitatea uztartuko zituen kultur erakunde bat osatu, alegia, euskara katedra eta Eusko Ikaskuntza Mintegi bat, *ahora estoy con deseos de aprovechar el ambiente creado por la Semana Vasca para echar los cimientos de una entidad cultural que nos permita trabajar constante y eficazmente por nuestra causa. Esbocé el proyecto y hará cosa de un mes que se lo leí a Gisasola<sup>6</sup> que lo aprobó y prometió, según mi deseo, convocar a los compatriotas para que lo conozcan y, una vez hechas las enmiendas que se estimen, llevarlo adelante. Es una lástima que tenga que esperar a marzo, en que los cursos comienzan, para la cátedra de euskera que pienso explicar en la universidad si mis gestiones, como espero, tienen éxito. Una cosa que cuanto antes quisiera poner en marcha es la audición semanal por radio, al modo de los franceses libres, españoles, etc., etc. Me parece cosa fácil de conseguir y mantener y de interés*

---

<sup>5</sup> Bingen Ametzagak Joxe Mari Lasarteri idatzitako gutuna, Montevideo, 1943ko azaroak 25.

<sup>6</sup> Ricardo Gisasola dugu Eusko Jaurlaritzaren ordezkaria Uruguain.

*indudable. En este plano hay mucho que hacer*<sup>7</sup>. Baikor oso ikusten zuen ekintza berrien egitasmoa Lehendakariak, *muy bien lo de la cátedra de euskera. Que sea una realidad. Me alegran tus noticias y la satisfacción por tus trabajos. No descanses. Este año será muy importante para la causa patria y por eso lleno de alternativas. Al fin triunfaremos pero eso dependerá casi exclusivamente de que pongamos en tensión todos nuestros afanes y esfuerzos*<sup>8</sup>.

1944ko ekainean *Euskal Erria* elkarteko Batzorde Eragilea hautatzeko hauteskondeak irabazi ondoren 1944ko uztailean osatu zen goian aipatutako programari jarraiki, kultura batzordea. Behin batzordea sortuta, egitasmoaren garapenari ekin zion ordezkariartzako kideek eta lagunak osatutako talde eragile berriak, *ya sabrás que conseguimos ganar la votación en la batalla por el consejo directivo de Euskal Erria. Ahora lo importante es administrar la victoria. Me han nombrado presidente de la comisión de fiestas, arte y cultura y ya he empezado a moverme todo lo que puedo a fin de conseguir un ciclo de conferencias y conciertos así como la formación de grupos de dantzaris y de un coro que nos sirvan esta primavera y verano en nuestras excursiones por el interior donde hay tanto vasco y todo está por hacer*<sup>9</sup>.

Azkar oso, txistu taldea, dantzari taldea, orfeoia eta Euzkadi Irratia eratzea lortu zuen 1944 eta 1946 bitartean kultura batzordeak. Lehendakariari adierazi bezala, talde hauen sorkuntzarekin batera, euskal kultura arloko edo euskaraz idatzitako liburuak eta aldizkariak eusko etxean eta Montevideon zabaltzeko, Ameriketako beste zenbait eusko etxeetan egindakoaren harian *Euskal Liburuko Elkarte* - *Club del Libro Vasco* elkarte Montevideoko eusko etxean sortzea zuen gogoan Ametzagak. Izan ere, euskal kultura arloko liburuen eta aldizkariaren zabalketa beti izan zen premiazko eginbeharra ordezkariartzetan. EKIN argitaletxeko aleak banatzeaz eta saltzeaz gain *Euzko Deya*, *Gernika*, *Argia* edo eta *Euzko Gogoa* aldizkarietarako harpidetzak suspertzea izan zen ordezkariartzen xede nagusien arteko bat. Uruguaiako kasuan kultura batzordearen eskutik burutu zen. Eusko etxeko liburutegirako aipatutako aldizkari guztien harpidetza egiteaz gain, *Euskal Erria* elkarteak antolatzen zituen hainbat eta hainbat ekitaldietan Buenos Airesko EKIN argitaletxeko liburuak saltzeko salmenta-postuak antolatzen ziren. Horrela, *Euzko Deya* zeharo zabaldu zen Uruguain, 1944 eta 1945 bitarte 72 harpidetza lortuz. Azken honi bertakoen artean doan banatzen zirenak gehitu beharra dago, nagusiki politikarien, kultura gizonen eta egunkari zuzendarien artean. Liburu berriak kokatu ahal izateko eta lehendik zirenak birkokatze, *Euskal Erria* elkarteko liburutegia zabaldu eta antolatu beharra zegoen eta hementxe dugu Ametzaga Londresko ordezkariartzan egin ohi zuen bezala, *Euskal Erria* elkarteko liburutegia antolatzen, bai eta, zurgin lanetan, apalategi berriak egiten<sup>10</sup>. Ildo honetan, aldizkariaren eta liburuen banaketa hobeto bideratzeko, Buenos Airesko Ixaka López Mendizabalen eta Andrés Irujoren eskaerari jarraiki, EKIN argitaletxeko Uruguaiako ordezkariartza sortu zen 1944ko neguan Montevideoko *Euskal Erria* elkartean<sup>11</sup>.

---

<sup>7</sup> Bingen Ametzagak Jose Antonio Agirrerri idatzitako gutuna, Montevideo, 1943ko abenduak 24.

<sup>8</sup> Jose Antonio Agirrek Bingen Ametzagari idatzitako gutuna, New York, 1944ko urtarrilak 20.

<sup>9</sup> Bingen Ametzagak Jose Antonio Agirrerri idatzitako gutuna, Montevideo, 1944ko uztaileak 31.

<sup>10</sup> Irujo Ametzaga, Xabier, *Euskal erbeste politikoa Uruguain (1943-1955)*, Irujo Ametzaga, Xabier, *Euskal erbeste politikoa Uruguain (1943-1955)*. Eusko jaurlaritzaren administrazioa eta kanpo ekintza atzerrian, Instituto Vasco de Administración Pública, Oñati, 2005.

<sup>11</sup> Bingen Ametzagak Joxe Mari Lasarteri idatzitako gutuna, Montevideo, 1944ko abuztuak 8.

Ildo berean, Iparraldean argia ikusten zuten *Eusko Jakintza* aldizkariko egindako harpidetza multzoarengatik esker onak eman zizkion Marceau kaleko egoitzan kultura proiektuarekin lotuta egon zen Joxe Migel Barandiaranek Ametzagari, *ya estará Ud. enterado de que me cargué con la dirección de la revista Eusko Jakintza y, como tal director, me es grato manifestarle mi agradecimiento por el gran servicio que viene Ud. prestando a esta publicación y a las otras obras de cultura en que estamos empeñados. Alrededor de esta revista hemos logrado reunir un numeroso grupo de colaboradores -más de cincuenta- del que forman parte los mejores vascólogos del mundo. Esperamos, pues, que nuestra publicación contribuya a imprimir sólida orientación científica a los estudios vascos ¿No podría Ud. enviarme algún trabajo de su investigación personal sobre los vascos en el Uruguay? (...) En un mundo que nos niega la constitución de una universidad vasca, la revista Eusko Jakintza aspira a ser nuestro órgano de cultura superior. Por lo demás, una prueba de que la empresa responde bien a las exigencias del ambiente científico es que más de un centenar de revistas de todos los países mantienen intercambio regular con la nuestra (...) ¿Me permite Ud. que le ponga en la revista Eusko Jakintza y en Ikuska que es Ud. nuestro representante y corresponsal en el Uruguay?*<sup>12</sup>

Bestalde, 1947an sei hilabetez plazaratu gabe egon ondoren, eusko etxeko *Euskal Erria* aldizkaria kultura batzordearen babesean gera zedin indar egin zuten Batzorde Eragileak, *Ayer se aprobó en sesión el proyecto que presenté para la comisión de cultura en virtud del cual uno de los fines específicos de ésta es el controlar y orientar la revista social que aspiramos a elevarla del modesto boletín que hoy en día es a un órgano de cultura e información vasca en estas tierras donde podría hacer una labor formidable*<sup>13</sup>. Bi urte pasa ondoren 1949ko negu australean lortu zuten azkenik aldizkariaren eraberritzearen proiektua gauzatzea. *Euskal Erria* elkarteko eguneroko berriak zabaltzeaz gain, Euskal Herriko gertaera politikoak eta tankera guztietako berri kulturalak landuko zituzten eusko etxeko buletinean. Aipu berezia merezi du 1949an gehituriko “Para una historia de Euskal Erria” atala. Bertan, aiez ale, elkarteko ibilbidearen eta garapen historikoaren gertaera nagusiak aipatzen joan ziren eta hori dugu gaur egun, inongo zalantzarik gabe, eusko etxearen historia bat eratzeko oinarri oinarritzko dokumentua, *hoy mismo te remito un ejemplar de la revista “Euskal Erria” correspondiente a este mes de agosto. (...) Y a propósito de ésta, tengo que darte una buena noticia y es que en la Comisión de Cultura hemos acometido la mejora, harto necesaria de ésta, y Dios mediante desde el número correspondiente a octubre espero que dicha mejora será sensible. Te darás cuenta de lo que ello significaría para nuestra obra en el Uruguay. Ya te tendré al corriente*<sup>14</sup>. Gobernuarekin lotura nabarmena zuten Manuel Intxaustik *Euskal Erria* aldizkariaren hainbat alerekin batera azken honen berri Ametzagari eskatzea eusko etxeetako aldizkariaren kutsu kulturalaren inguru Jaurlaritzaren kezka isla dugu<sup>15</sup>.

### ***Euskal kultura Uruguaiako Unibertsitatean***

---

<sup>12</sup> Joxe Migel Barandiaranek Bingen Ametzagari idatzitako gutuna, Sara, 1949ko ekainak 9.

<sup>13</sup> Bingen Ametzagak Joxe Mari Lasarteri idatzitako gutuna, Montevideo, 1949ko ekainak 29.

<sup>14</sup> Bingen Ametzagak Joxe Mari Lasarteri idatzitako gutuna, Montevideo 1949ko abuztuak 26.

<sup>15</sup> Manuel Intxaustik Bingen Ametzagari idatzitako gutuna, Uztaritze, 1949ko ekainak 8.

1943ko uztaileko 20ean Enrique Gandiaren Buenos Airesko etxean sortutako *Instituto Americano de Estudios Vascos* erakundearen irudira, Jaurlaritzaren ordezkartzeekin bide ezberdinez lotutako beste hamaika euskal kultura erakunde osatu ziren 1943tik aurrera Ameriketara. Parisko Marceau kaleko ordezkartzean kultura arloko proiektuetan aritutako Francisco Basterretxea, Ildefonso Gurrutxaga eta Bingen Ametzaga ditugu elkartearen kide sortzaileen artean eta, hauekin batera, 1936 eta 1937 bitarte Eusko Jaurlaritzako kultura sailarekin modu batean edo bestean kolaboratu zuten lagun ugari ditugu, hala nola, Miguel Alzo, Justo Garate edo Isaac López Mendizabal. Erakundearen estatutuen arabera, euskal kultura zabaltzeko asmo irmoarekin sortutako elkarteak dugu hau, *institución captadora vigilante de las nobles inquietudes europeas entre las que se cuentan las del pueblo euskaro en torno a su propia historia y lengua*<sup>16</sup>.

Argentinan bezala, Uruguain ere jarri ziren ordezkartzeak kideek goian aipatutako gutunean Ametzagak Lehendakariari adierazten zion harian, tankera bereko erakunde bat osatzeko lanetan. Ildo honetan Euskal Astean zehar Errepublikako unibertsitatean *Eusko Ikaskuntza Mintegia - Departamento de Estudios Vascos* osatzeko mahaigaineratutako proiektuak aipu berezia merezi du. Adolfo Berro filologia irakaslearen sorospenarekin lortu zuen Ametzagak Eusko Ikaskuntza Mintegia Errepublikako Unibertsitatean osatzea, *no me faltará quehacer si consigo poner en marcha un proyecto que consiste simplemente en la constitución de una sociedad cultural a la que puede llamarse “Estudios Vascos”. Tengo ya un borrador del proyecto sobre el que ayer consulté con Garmendia que vino a casa y del que quería algunas informaciones y orientaciones prácticas. En síntesis se trata del aprovechamiento del ambiente creado por la semana cultural, asociando a las señoras, señores y jóvenes con simpatía por estas cosas, manteniendo y vigorizando ese espíritu por medio de conferencias mensuales, círculos de estudios, edición de folletos, veladas, excursiones al interior etc., etc. Mañana pienso hablar con Gisasola para después explicar el proyecto ante los amigos y, previas sus objeciones y enmiendas, lanzar la cosa adelante*<sup>17</sup>. Azkenik, 1945ko maiatzaren 20an eratu zen Mintegia.

Euskal kulturaren inguruko ikerketaz gain, bost izan ziren Eusko Ikaskuntza Mintegiaren xede eta lorpen nagusiak:

1. Euskal kulturaren agerpena Uruguaiako arlo akademikoan suspertu. Hilabetero Errepublikako Unibertsitatean jardunaldiak eta ekitaldiak antolatzeaz gain, hilabetez hilabete euskal jaiak, kontzertuak, dantzaldiak eta arte erakusketak antolatu ziren bai unibertsitatean zein Ateneoan edo eusko etxean bertan. Guzti hauekin batera, 1951ean Errepublikako Unibertsitatean eratutako euskal kultura katedra dugu Eusko Ikaskuntza Mintegiko lorpenik azpimarragarriena. Ildo bereko esfortzuak ditugu Jose Antonio Agirrerena edota Jesús Galindezena New Yorkeko Columbia Unibertsitatean.
2. Aurreko asmoaren harian, *Comisión Nacional de Cultura* elkargoko eta *Academia Nacional de Letras* erakunde kulturalarekin elkarkidetzak estua suspertu. 1945 eta 1953 bitarte Montevideoko Ateneoko zuzendari izandako Carlos Vaz Ferreira laguntzarekin eta elkartasunarekin bai eta *Generación de los maestros serenos* belaunaldi modernistako kidea zen Raúl Montero Bustamantekin harreman estua

---

<sup>16</sup> *Boletín del Instituto Americano de estudios Vascos*, I, 1. zbka., 2. orr., Buenos Aires, apirila eta ekaina, 1950.

<sup>17</sup> Bingen Ametzagak Joxe Mari Lasarteri idatzitako gutuna, 1943ko abenduak 1.



garatu zuten Mintegiko kideek. Ildo berean, Uruguaiako erbestea ezagutu zuten Galiziako, Kataluniako eta Euskal Herriko lagunek 1945ean *Galeuzca Uruguai* erakunde osatzen, Eusko Ikaskuntza Mintegiaren ekintzaren inguru tankera ezberdinetako ekitaldiak eta jardunaldiak antolatu zituzten, hala nola, Montevideoko *Jocs Florals de la Llengua Catalana* olerki lehiaketa.

3. Jaurlaritzaren beste amerikar estatuetakoa ordezkartzeekin zein eusko etxeetako erakunde kulturelekin harremanak suspertu. Era berean, *Euskal Erria* elkarteak *Euskaltzaleak* elkartarekin eta eusko etxeak batzorde eragilearekin eta kultura batzordearekin lankidetzara sustatu. Arlo honetan Iparraldean bildutako Jaurlaritzako zenbait kidek eta lagunek 1949tik aurrera proposatutako euskararen eguneko ekitaldiaren antolakuntza bideratzeko lanak aipatu berezia merezi du.
4. *Gernika, Ikuska, Eusko Jakintza, Egan, Euzko Gogoia* eta erbesteko beste hamaika aldizkari eta erakundeekin harremanetan jartzea zuen Mintegia helburu nagusien arteko bat, eusko etxeak kultura batzordeko kideek egiten zuen bezala aipatutako agerkerien Uruguain harpidetzak areagotuz azken hauek Uruguain zabaltzen lagundu. Eusko etxean ez bezala, maiz dohain banatzen zituen Mintegiak aldizkariak unibertsitatean edota Uruguaiako euskal gizartetik hurbil ez zeudenen artean euskal kasua ezagutarazteko. Sarritan ere artikuluak idatziz aipatutako aldizkeriekin kolaboratzen zuten Mintegiko kideek. Ildo berean, EKIN argitaletxeak bilduma osoa unibertsitateko eskuratzea izan zen hasiera batetik Mintegiaren lehen eginkizunetariko bat.
5. Eusko Jaurlaritzak zein Eusko Ikaskuntzak antolatutako 1948ko VII. eta 1954ko VIII. Eusko Ikaskuntzen Biltzar Nagusietan parte hartu. Bietan hartu zuen parte biziki Eusko Ikaskuntza Mintegiak, bai eta 1956ko Euskaldunen Nazioarteko Biltzarreko proiektuan ere.

Errepublikako Unibertsitatean egituratutako Eusko Ikaskuntza Mintegiaren harian munduan zehar euskal kultura arloan lan egiten zuten erakunde, elkarte edo banakako enpresak bateratzeko eta koordinatzeko asmoarekin osatu zuten Jaurlaritzarekin oso harreman estua zuten kideek *Gernika Institutua, este Instituto desea establecer contacto con los vascos de América, como lo hiciera en otro tiempo aquella institución que se llamó “Sociedad Vascongada de Amigos del País”. Para ello trata de formar en todas las repúblicas americanas “Juntas Culturales Vascas” (Eusko Jakin Billera), cuya finalidad es recoger información sobre:*

1. *Huellas de la influencia vasca en la cultura americana.*
2. *Densidad de la población vasca en cada república:*
  - a) *Vascos nacidos en Euzkadi*
  - b) *Americanos de prosapia vasca*
3. *Hombres de origen vasco que se hayan distinguido en las ciencias, letras, artes, política y milicia.*
4. *Publicar toda información relativa a los puntos precedentes en la revista “Gernika”*<sup>18</sup>.

---

<sup>18</sup> Joxe Migel Barandiaranek Bingen Ametzagari idatzitako gutuna, 1947ko ekainak 23.

Institutuaren oinarrizko helburuari jarraiki munduan zehar barreiatutako taldeen elkarlana koordinatzeko zein *Gernika* aldizkaria Amerikako eusko etxe guztietan eta elkarrekin zabaltzeko “Jakín Billerak” osatu zituzten proiektuaren sustatzaileek. Berriz ere, Mexikoko, Venezuelako, Txileko, Estatu Batuetako, Uruguaiako eta Argentinako ordezkariekin jarri zen kontaktuan Joxe Migel Barandiaran programari ekin ahal izateko, bide azkarrena eta seguruena baitzen kultur arloko mundu zabaleko ekitaldiei bidea egiteko, *como esta revista es el órgano oficial, según los fines de su fundación de la actividad cultural del Instituto de su nombre y, por lo tanto, de todos los Jakín Billerak o Juntas de Cultura Vasca, se desea que estas Juntas procuren hacer suscripciones para la revista, cada cual en su respectiva república. Hasta ahora van formadas las Juntas o Eusko Billerak de México y Venezuela. Están en vías de formación las de Chile, Argentina y Estados Unidos. La Junta del Instituto Gernika me ha encargado que le escriba a Ud. preguntándole si Ud. podría formar y organizar el Eusko Jakín Billera (Junta de Cultura Vasca) del Uruguay. Creemos que es Ud. la persona más calificada para realizar tal obra en esa república. Si Ud. conoce ahí personas de reputación científica (sobre todo historiadores) que pudieran escribir en nuestra revista sobre el primero y el tercero de los puntos arriba apuntados, le agradeceré me lo diga, para que yo, como director, les invite a colaborar en dicha publicación. Dispénsame que esta mi primera haya sido para solicitar de Ud. trabajos y servicios*<sup>19</sup>.

Mintegiaren lanarekin lotuta, Ameriketako lehen euskara katedraren sorkuntza dugu ordezkariaren lanik aipagarrienetarikoa bat. 1944an osatu zen Errepublikako Unibertsitateko *Instituto de Estudios Superiores* ikastegiaren babesean. 1955 arte eman zituen klaseak Bingen Ametzagak eta ordutik hasita, 1963an oraindik eskaintzen zituen unibertsitatean klaseak José Mendiola Eusko Ikaskuntza Mintegiko eta eusko etxeke *Euskaltzaleak* taldeko kideak. Enrique José Mochó lehendakariaren eta Pedro Artetxe idazkariaren eskutik eginkizun berri honetan esker onak eta arrakasta opa zion *Euskal Erria* elkarteak Ametzagari, *este Consejo se congratula por la cátedra de Lengua Vasca que estará a cargo de Ud. y en cuya misión deséale completo éxito para honra de nuestra raza. Con mis mejores sentimientos de alta consideración, saludo a tan buen asociado con toda cordialidad y simpatía*<sup>20</sup>. Zalantzarik gabe hau dugu Uruguaiako ordezkariaren lorpenik handienetarikoa bat, bai eta amerikar erbestean euskal kulturaren alde emandako urrats garrantzitsuenetarikoa bat.

### ***Euskara atzerritik suspertuz***

Euskara atzerritik suspertzea utopiatzat zuten askok, izan ere, maiz du auzi honek isla Jokín Zaitetik, Andima Ibiñagabeitiak eta Bingen Ametzagak elkarrekin idatzitako gutunetan. Hala ere, erbestea noraino luza zitekeen ziurtzat jakin gabe, atzerri luzean zehar ordezkarietatik bultzatutako lehen helburu kulturaren arteko bat dugu hau. Erbesteko hizkuntza politika plangintza tinko eta orokor baten baitan aztertu eta koka behar dugu euskara klaseen zein ikastola ofizialen antolakuntza, euskararen eta euskal kulturaren zabalkundea, literaturgintza eta itzulpena. Euskarari dagokionez lehen urratsa euskara osotua bideratzea zen. Eta arlo honetan itzulpenak indar berezia hartu zuen.

---

<sup>19</sup> Joxe Migel Barandiaranek Bingen Ametzagari idatzitako gutuna, Sara, 1947ko ekainak 23.

<sup>20</sup> *Euskal Erria* eusko etxeak Bingen Ametzagari idatzitako eskutitza, Montevideo, 1944ko apirilak 11.

1949ko maiatza aldera, euskararen eguna Iparraldean eta munduko eusko etxe guztietan ospatzea planteatu zien Uztaritzeko *Intxausti-Baita* etxean Joxe Mari Lasarteri, Telesforo Monzoni eta Manuel Intxautiri Manuel Sotak. Bigarren bilera batean Pierre Laffitte euskaltzalea eta idazlea eta Louis Dassance Uztaritzeko alkatea eta *Euskaltzaleen Biltzarra* erakundeko lehendakaria gonbidatu zituzten azken bi hauen iritzia jasotzeko. Ideia martxan jartzea erabaki zen bileran. Abenduaren 3a, Xabier deunaren eguna alegia, proposatu zuen euskararen eguna ospatzeko Manuel Intxaustik<sup>21</sup>.

Montevideoko Jaurlaritzako ordezkariaren eskutik, Oscar Secco Ellauri Uruguaiako hezkuntza ministroaren babesa izan zuten Euskal Erria eusko etxean 1949ko abenduaren 3an egindako ekitaldiek. Halaber, Leopoldo Agorio Etcheverry Errepublikako Unibertsitateko errektorea eta Adolfo Berro García filologiako katedratikoa bertaratu ziren. Aste oso batez bete zuen eusko etxeko areto nagusia euskal liburu erakusketak eta azokak bai eta hogeitatu artista bildu zituen euskal margolarien lehen arte erakusketak. Horretaz gain, mezak, afariak eta asteburuko jaialdiak osatu zuten Montevideoko eusko etxeko lehen euskararen eguneko egitaraua, *la celebración del Día del Euskera ha sido aquí realmente una semana, de jueves a jueves, (...) Como le decía, entre Euskal Erria y el departamento de Estudios Vascos de la Universidad, hemos empleado la semana y creo que hay cosas que no han salido bastante bien. Para que Ud. se vaya haciendo una idea le adjunto unos recortes de diarios de acá con diversos aspectos de los actos ya en Euskal Erria ya en la Universidad donde asistió, no sólo el rector, como dice el recorte que le adjunto, sino también el secretario de Instrucción Pública representando al ministro que por tener interpelación en la Cámara no asistió como era su deseo. (...) De las suscripciones a "Gure Herria" he empezado a trabajar y, sinceramente le digo que aquí se podrá hacer muy poco. Tenga Ud. la seguridad de que lo que se haga será lo máximo que se haya podido hacer. A base de mi pequeño grupo de alumnos de euskera pienso ahora crear aquí la entidad "Euskaltzaleak" y trabajaremos en esto de la simpática revista "Gure Herria" que tanto hizo y que tanto puede hacer por nuestra cultura*<sup>22</sup>.

Azken gutun honetan Ametzagak Manuel Intxaustiri aipatutakoaren ildoan, Ameriketako zein Europako beste hainbeste tokietan egiten zenaren harian, 1949an sortutako *Euskaltzaleak* taldeak *Euskal Liburu Elkarte*a osatu zuen eusko etxeko kideen artean. Euskaraz argitaratutako liburu guztiak erosteaz eta Uruguain zabaltzeaz gain, urtez urte liburu bat euskaraz idaztea eta argitaratzea zuten helburu nagusia. Hortaz, Montevideoko *Euskaltzaleak* elkartearen eskuz *Euskal Erria* elkartean susperturiko ekintza guztien artean EKIN argitaletxeak 1952ko euskara egunerako *Hamlet, Prince of Denmark* Shakespearearen klasikoaren itzulpeneko argitalpena azpimarratu beharra dago, bai eta 1953an Florensa argitaletxeak *Platero eta Biok* itzulpenarena ere<sup>23</sup>. Biak ditugu ordezkariaren kide zen Bingen Ametzagak euskaratuta eta Eusko Ikaskuntzako kide zen Carlos G. Mendilaharsuren irudiekin hornituta, *como iniciación de una serie de publicaciones de obras de valor universal vertidas al éuskaro para expresar así el amor de los vascos a la cultura y a su idioma, ha sido editado en esta ciudad, por vez primera en vascuence, "Hamlet", en versión del profesor Vicente de Amezaga, que fue director general de*

---

<sup>21</sup> Irujo Ametzaga, Xabier, *Euskal erbeste politikoa Uruguain (1943-1955)*, Irujo Ametzaga, Xabier, *Euskal erbeste politikoa Uruguain (1943-1955)*. Eusko jaurlaritzaren administrazioa eta kanpo ekintza atzerrian, Instituto Vasco de Administración Pública, Oñati, 2005.

<sup>22</sup> Bingen Ametzagak Manuel Intxaustiri idatzitako gutuna, Montevideo, 1949ko abenduak 10.

<sup>23</sup> Bingen Ametzagak Andrés Irujori idatzitako gutuna, Montevideo, 1952ko maiatzak 9.

*primera enseñanza en Vasconia*<sup>24</sup>. Oihartzun zabala izan zuen liburuaren argitalpenak, izan ere, Nicolás Ormaetxearen, Andima Ibinagabeitiaren eta Jokin Zaitegiren oniritzia jaso zuen argitaratu eta berehala itzulpenak.

### **Kultur eskubideak**

Euskal Herriaren eskubide politiko eta kulturalen artean, euskal herritarrek euskara jakin, ikasi eta erabiltzeko eskubidea defendatu eta euskararen kontrako jasapenak salatzen saiatu zen behin eta berriro ordezkarriz eskutik Ameriketako herrialde ezberdinetan Jaurlaritza. Argentinan ez bezala, enbaxadarik gabeko gobernu zen Francoren Uruguain. Halarik ere, delegazioa izanik, agerpena nahi zuen Montevideon biziagotu, izan ere, Hego Ameriketako beste herrialde batzuetan bezala Uruguako ordezkarriz enbaxada bihurtu nahi zuen Francoren gobernuak, *en esas conversaciones con Dardo, éste nos explicó lo que ya en mi última y reciente conversación con él me había expuesto: que los franquistas aprietan, no sólo en su ofensiva cultural, cosa de la que ya estoy al tanto y les vigilo con toda atención, sino atreviéndose a llevar a la Comisión de Relaciones Exteriores del Senado el proyecto de elevar a embajada la hoy en día legación franquista*<sup>25</sup>. Nahiz enbaxada mailarik ez izan eta, bai sozialki zein politikoki ezarpenik ez izan, zenbaitetan Jaurlaritzako ekintzak trebukatzea edota ekimenen ofizialtasuna murriztea lortu zuen legazio frankistak<sup>26</sup>.

Argentinan bezala, Uruguako ordezkarriz enbaxada bihurtu nahi izan zuen 1947ko Nazio Batuen Erakundeko Biltzar Nagusiaren aurretik Francoren gobernuak. Horretarako, Hego Amerika eta Iberiar Penintsula hispanitatearen lokarrietan oinarriturik, bi herrialdeak uztartzen zituzten kultur arloko ekintzetan egin zuen Francoren gobernuaren ordezkarriz indar, *en esas conversaciones con Dardo, éste nos explicó lo que ya en mi última y reciente conversación con él me había expuesto: que los franquistas aprietan, no sólo en su ofensiva cultural, cosa de la que ya estoy al tanto y les vigilo con toda atención, sino atreviéndose a llevar a la Comisión de Relaciones Exteriores del Senado el proyecto de elevar a embajada la hoy en día legación franquista. Parece que Haedo es el portavoz de esta tentativa y ha encontrado algún compañero que le secunda. A mí me parece que esto no puede hacerse aquí de ningún modo, pese al cariz en cierto modo favorable que las cosas han tomado para los herrero-falangistas, pero por si acaso, bueno es estar alerta para hacer de parte de uno todo lo poco o mucho que pueda contra tales maquinaciones*<sup>27</sup>. Nazio Batuen Erakundeko Biltzar Nagusien aurretik, nagusiki 1947an eta 1948an, sustatu zituen Martín Artajok *Institución Cultural Española del Uruguay* erakundearen eskutik Francoren gobernuaren aldeko hainbat eta hainbat ekitaldi kultural.

Jaurlaritzaren ordezkarrizaren kezkak eta salaketak bide, bai eta Eusko Ikaskuntza Mintegiak unibertsitatean agertutako salaketa medio, 1948ko abuztuaren 18an prentsa-aurre batean Francoren ordezkarrizaren bitartez eragindako propaganda politikoaren kontrako iritzia zabaldu zuen Uruguako kultura erakunderik nabarmenenak, hots, Montevideoko

<sup>24</sup> “Celebran los vascos el día de su idioma”, *La Nación*, Montevideo, abenduak 3, 1952.

<sup>25</sup> Bingen Ametzagak Joxe Mari Lasarteri idatzitako gutuna, Montevideo, 1947ko urriak 5.

<sup>26</sup> Irujo Ametzaga, Xabier, *Euskal erbeste politikoa Uruguain (1943-1955)*, Irujo Ametzaga, Xabier, *Euskal erbeste politikoa Uruguain (1943-1955)*. Eusko jaurlaritzaren administrazioa eta kanpo ekintza atzerrian, Instituto Vasco de Administración Pública, Oñati, 2005.

<sup>27</sup> Joxe Mari Lasartek Bingen Ametzagari idatzitako gutuna, Paris, 1947ko urriak 5.

Ateneoak, *el Ateneo de Montevideo, en cumplimiento de sus postulados de afirmación democrática y de defensa de la cultura, denuncia ante la ciudadanía la peligrosa infiltración en nuestro país, como en otros de Iberoamérica, de intelectuales procedentes de la España franquista, condenada en repetidas ocasiones por los pueblos libres del mundo. Después del fracaso del plan de infiltración imperialista establecido por el Consejo de la Hispanidad, unánimemente repudiado por los pueblos de América, el gobierno de Madrid ha organizado el envío de intelectuales, aparentemente prescindentes en materia política, pero que en una u otra forma han dado muestras de adhesión al régimen imperante en su país y para el que nunca han tenido una palabra de censura, aún estando en el extranjero. Esto influye en la opinión pública produciendo un escepticismo que conduce, fatalmente, a una desviación de la conducta en la moral política. El Ateneo de Montevideo, al dar la alerta acerca de este nuevo género de infiltración por parte de un gobierno totalitario que el pueblo uruguayo ha repudiado públicamente, se dirige a las instituciones culturales privadas y oficiales, exhortándoles a no prestar apoyo a tal intento liberticida*<sup>28</sup>. Ateneoaren gutun zabalaren ondorioz ikaragarri mugatu zen Espainiako ordezkarietako ekintza kulturala Uruguain, bai eta ildo berean politikoa noski.

Halarik ere, kultur arloan Montevideon eta Uruguai osoan Jaurlaritzako ordezkarietako agertutako salaketarik eraginkorrena 1954ko UNESCOko Biltzar Nagusian agertutako dugu. Esan bezala, 1954ko azaroan bildu zen Montevideon UNESCOko VIII. Biltzar Nagusian aurkeztu zuen, Uruguaiako Justino Zabala Muniz atzerri ministroaren eta, oro har, Uruguaiako gobernuaren laguntza eta elkarkidetzeta gertuarekin, euskal kulturak eta euskal herritarrek bizi zuten errepresio politikoarengatik protesta bizia Eusko Jaurlaritzak. 1954ko abenduan heldu zen Montevideora UNESCOn Espainia ordezkatzeko Ruiz Jiménez hezkuntza nazionalen Francoren gobernuko ministroa<sup>29</sup>. Hau zela eta, *El Sol*, *El País* eta *El Plata* egunkarietan zein Montevideoko Unibertsitateko Humanitate fakultateko errektoretzan eta Zuzenbide fakultateko dekanotzan protesta eta salaketa ekintzak suspertu eta antolatu zituen Francoren gobernuaren azkeneko fusilamentuengatik Ametzagak ordezkarietaren izenean, *a nuestras manos ha llegado El Sol de esa con sus ataques contra el régimen franquista con motivo del Congreso de la UNESCO y de la llegada a Montevideo de la misión española franquista que ha de actuar en aquel. La publicación nominativa de los diputados, intelectuales, sacerdotes vascos, etc. fusilados por los franquistas le da un tono de ataque mayor. (...) Nos dicen que el rector de la Universidad y el decano de Derecho se reúnen con intelectuales y preparan una exposición de protesta. (...) Le incluyo esta nota que puede ser utilizada para combatir el franquismo. Pone de manifiesto que, la ley franquista es puro arbitrio y que se deja sin efecto cuando así conviene a sus gobernantes. Acredita también que, en España se adoptan, hoy mismo, disposiciones de orden penal con vigor retroactivo de varios años contra el reo, faltando a todas las normas de justicia conocidas, recordadas por el Papa recientemente en su discurso a los congresistas de Derecho Penal. Y tiene el caso la ventaja de tratarse de un expediente de indulto formulado por la Diputación de Navarra, por el obispado de Pamplona y por todos los obispos navarros que son media docena. Así tratan a los señores del báculo, hay que ver el éxito de los gringos al liberalizar el régimen... Los datos*

---

<sup>28</sup> Ametzaga Aresti, Bingen, “Contra la infiltración franquista en el Uruguay”, *Euzko Izpar Banatzea*, 328. zbka., 7. orr., abuztuak 18, 1948.

<sup>29</sup> “El franquismo, paladín de la paz”, *Euzko Izpar Banatzea*, 1.854. zbka., 3. orr., Paris, azaroak 19, 1954.

*utilizados los han proporcionado los abogados del recluso*<sup>30</sup>. Ildo berean, Manuel Irujok bidalitako dokumentuarekin batera, Agirrek bidalitako zirkularra prentsan plazaratu eta Montevideoko VIII. Biltzar Nagusiko herrialde ezberdineko mandatarien artean zabaldu zuen Ametzagak Justino Zabala Muniz ministroaren oniritzi osoz. Onodko hau dugu gutunaren testua:

*Señor presidente y señores miembros del Consejo Ejecutivo de la UNESCO:*

*Ya en otras ocasiones en Gobierno Vasco en el exilio que tengo el honor de presidir se ha dirigido a la UNESCO llamando la atención del Consejo Ejecutivo y de los Delegados Nacionales sobre los constantes atentados que sufre la cultura del Pueblo Vasco bajo el régimen del General Franco. (...)*

*Hemos denunciado anteriormente la política sistemática de genocidio cultural que se sigue contra el Pueblo Vasco, unas veces con brutalidad, otras con disimulo e hipocresía. Nada es extraño allí donde la libertad de opinión ha sido suprimida totalmente.*

*El poder dictatorial oprime políticamente a todos los ciudadanos del Estado, pero en el caso vasco, como en el catalán y el gallego, la persecución es doble, pues va orientada directamente hacia la supresión de la cultura peculiar del país, impidiendo, entre otras cosas, la utilización del idioma propio en la prensa diaria, después de haber decretado su exclusión de toda clase de centros de enseñanza. (...)*

*Unidos estos hechos a la supresión de toda especie de sociedades culturales como Eusko Ikaskuntza (Sociedad Internacional de Estudios Vascos) y su órgano, la Revista Internacional de Estudios Vascos, así como una multitud de asociaciones culturales y revistas de todas clases, incluso de orden religioso, constituyen suficientes detalles para concluir que el Estado español actual infringe las normas y los fines para los cuales fue creada la UNESCO. (...)*

*Ruego al Sr. Presidente del Comité Ejecutivo de la UNESCO y a los demás componentes del mismo, tengan por recibido este escrito, dando cuenta de su contenido a la Conferencia General de la UNESCO que se va a celebrar en Montevideo, adoptando en consecuencia aquellas resoluciones que permitan el libre desenvolvimiento de la lengua y cultura vascas, hoy perseguidas por un Estado miembro de la UNESCO*<sup>31</sup>.

Jaurlaritzak Montevideoko ordezkartzaren eskutik bideraturiko ekintzei Uruguaiako *Centro Republicano Español* elkarteak antolatutakoak gehitu zitzaizkion. Hauen artean aipamen berezia merezi du azaroaren 12an, hots, Biltzarraren hasieraren egunean bertan, Montevideoko zenbait egunkaritan Francoren poliziak eraildako eta atzerriratutako lau ehun bat artisten, idazleen, irakasleen eta, oro har, kultura gizon-emakumeen osagabeko zerrenda. Hildakoen eta desagertutakoen izen abizenak ematean, arrakasta handia eta oihartzun zabala izan zuen demokrazia bere egina zuen Uruguaiako gizartean. Horrekin batera, Francoren Espainiaren kultura arlo inguruko ondoko datuak jakitera eman zituen

---

<sup>30</sup> Monzon zuen abizena giltzapetutakoak (Manuel Irujok Bingen Ametzagari idatzitako gutuna, Paris, 1954ko azaroak 24. Baita ere (Manuel Irujok Bingen Ametzagari idatzitako gutuna, 1954ko azaroak 8.

<sup>31</sup> Joxe Antonio Agirrek Bingen Ametzagari idatzitako gutuna, Paris, 1954ko urriak 20.

elkarte errepublikarrak: sei mila fusilatutako edo desagertutako irakasle; zazpi mila espetxeraturiko maisu; 40.000 kargugabetutako irakasle. Azken hauen ordezkariak gobernauk militarrek jarri zituela salatzen zuen artikulua eta, Millan Astray jeneralaren “*¡Viva la muerte!, ¡muera la cultura!*” aldarriaren eskutik osatu zen gobernu faxistak UNESCO erakundearen sarrera izatearen bidegabekeria eta demokraziarekiko iraina ikustaraziz ematen zioten amaiera artikuluari errepublikar elkartekoek<sup>32</sup>. Ildo berean, durundi handia izan zuen Montevideon Jaurlaritzako ordezkariak 1949ko urriaren 27an Bizkaiko gobernadore zibilak hilobietatik euskal inskripzioak kentzearen aginduaren salaketak, *el 27 de octubre de 1949, una disposición del Gobernador Civil de Vizcaya obligaba a las familias propietarias de tumbas y monumentos funerarios sobre los que figuraban inscripciones en lengua vasca, a retirar los epitafios y reemplazarlos por inscripciones en castellano. Estas medidas no han sido rectificadas*<sup>33</sup>.

### ***Biltzar Nagusiak bultzatu. 1948ko eta 1954ko Biltzar Nagusiak.***

Aurreko sei Eusko Ikaskuntza Biltzarrak ez bezala, Eusko Jaurlaritzak parte hartze nabarmena izan zuen Biltzar nagusi honen antolaketan. Jaurlaritzarekin batera *Sociedad Internacional de Estudios Vascos* erakundeak antolatzen lagundu zuen ere. Biziki hartu zuten parte Ameriketako zein Europako ordezkariak eskutik koordinaturik, herrialde ezberdinetako euskal erakunde kulturalak. Uruguairi dagokionez, Errepublikako Unibertsitateko Eusko Ikaskuntza Mintegiak izan zuen Uruguaiako errepresentazio kulturalaren zamarik handiena. Unibertsitatean eta unibertsitatetik kanpo atxikimenduak lortzeaz gain, bederatzi saio edo artikulua eta ordezkari bat, Gabriel Biurrun alegia, bidali zuten Miarrizera. Ildo berean, lagundu zuten Uruguaiako unibertsitatean zein gizartean ere Biltzarraren berri ematen, azken honen ondorio nagusiak ezagutarazten eta, noski, euskal kulturaren aldeko Uruguaiako sorospena azpimarratzen.

Bidalitako bederatzi lanek euskal kultura Uruguain zuten abiapuntu eta lokarri nagusia. Izan ere, Biltzarra amaitu ondoren eta, berriz ere Eusko Ikaskuntza Mintegiaren eskutik, aurkeztu ziren lanak Unibertsitateko paraninfoan eta argitalpenetan. Orokorrean, isla handia izan zuten bai 1948ko zein 1954ko Iparraldean buruturiko ekintza kultural hauek eusko etxeetan zein Ameriketako herrialde ezberdinetako prentsan. Zalantza izpirik gabe Jaurlaritzaren eraginaren fruitua dugu lehenengoa nagusiki, alabaina, bietan hartu zuen parte eta Biltzar bakoitzeko arlo guztien batzorde eragileetan Jaurlaritzarekin zuzenean loturiko kultura arloko eta politika arloko kideak ditugu, hala nola, Manuel Intxausti, Jesús Leizaola, Jon Bilbao, Domingo Epalza, Xabier Landaburu, Manuel Sota edota Jose Antonio Agirre bera dugu.

### ***Jaurlaritzaren kultura ekintzaren inguruko eztabaida***

---

<sup>32</sup> Irujo Ametzaga, Xabier, *Euskal erbeste politikoa Uruguain (1943-1955)*, Irujo Ametzaga, Xabier, *Euskal erbeste politikoa Uruguain (1943-1955)*. Eusko jaurlaritzaren administrazioa eta kanpo ekintza atzerrian, Instituto Vasco de Administración Pública, Oñati, 2005.

<sup>33</sup> “Una protesta del Gobierno Vasco ante la UNESCO”, *Euzko Izpar Banatzea*, 1.850. zbk., 3. orr., Paris, azaroak 16, 1954.

Aurrekoari begira zenbait ideia nagusi ondoriozta ditzakegu Agirrerren atzerriko gobernuaren kultur ekintzari buruz:

- Eusko Jaurlaritzaren kultur ekintzak Parisko ordezkartzan 1938 eta 1940 bitarte diseinaturiko programa kulturean du oinarri. Marceau kaleko egoitzan eraturako programa hau europar erbeste motz bati aurre egin ondoren praktikan jartzeko pentsatuta zen, hortaz, 1937an burutu gabe edo gudak ebatzirik kultura sailean geratu ziren ekintzetan du oinarria.
- Amerikar erbestearen luzapenak ez zuen aldiz zeharo eraldatu ekintza kultureko ildo nagusiak, hots, aldizkari espezializatuen eta ikerketa institutuaren sorrera, euskal idazleak eta ikertzaileak beharrezkoak zituen erreferentzia eta dibulgazio lanak osatzea eta zabaltzea, euskal hizkuntzaren sustapenerako programa baten garapena eta itzulpenen areagotzea euskal hizkuntzaren normalizazioa garatzen laguntzeko, Eusko Ikaskuntzen Biltzar Nagusien antolaketa eta, azkenik, euskal kulturaren dibulgazioa eta euskal kulturaren zapalketaren salaketa atzerrian.
- Kultura arloan euskal erbesteak ezagutu zituen ekintza nagusiak ez ziren esfortzu pertsonal bakan soiletan oinarritutako eta euren arteko inongo komunikazioarik gabe garaturako jarduerak. Aztertu dugun bezala harreman sare joria zegoen osatuta eta komunikazioa garatzeko 1948ko eta 1954ko Biltzar Nagusien antzeko ekintzak suspertu ziren Jaurlaritzatik zein Jaurlaritzaren herrialdez herrialdeko ordezkartzetatik.

Aurreko guztiaren garapena Lehendakariak Jokin Zaitegiri eta Bingen Ametzagari Iparraldean Jaurlaritzaren Kultur Etxearen proiektuan du isla. Halarik ere, 1949ko krisialdi ekonomikoak izugarri mugatu zituen Jaurlaritzaren ahalbide praktikoak eta azken hauekin batera Kultur Etxearen bideragarritasuna bera. Bestalde, Jaurlaritzak kultur arloan zituen betebeharren mugak ere argi zituen. Ezin zuen euskara osotu bakun baten modeloa eragin, nahiz eta garbi dago Zaitegiren eta Ametzagaren hautaketan zein ildo zuen Lehendakariak gogoan. Jaurlaritzaren kultur ekintzaren jarraibideak gobernu bateko kultura ministerio baten esparruarenak ziren, hots, euskal kulturaren koordinazioa eta sustapena. Aipaturako zioengatik ez zuen zegokion finantziaketa zereginak hartzerik izan.

### ***Bibliografia***

- Ametzaga Aresti, Bingen, “Emigrantes vascos al Uruguay”, *Euzko Izpar Banatzea*, 677. zbka., 3. orr., Paris, Urtarrilak 6, 1950.
- Ametzaga Iribarren, Arantzazu, *Memorias de Montevideo (1943-1956)*, argitaratu gabe.
- Ametzaga, Arantzazu, “La Gran Semana Vasca de Montevideo”, *Kultura. Cuadernos de Cultura*, 5. zkia., 49-63. orr., Donostia, urtarrila 1983.
- Ametzaga Urlezaga, Elías, “Diáspora del 36. Nómina de prensa y periodistas vascos en ultramar”, *Sesenta años después. Euskal Erbestearen Kultura*, 281-314. orr., Hamaika Bide Elkarte, Donostia, 2000.



- Arana Martija, José Antonio, *Elai-Alai, Euskalherriko Lehenego Koreografi Taldea, Primer grupo coreográfico del País Vasco*, Gernika Kultur Elkarte, 1977.
- Arana Martija, José Antonio, *Eresoinka. Embajada cultural vasca 1937-1939*, Bilbo, 1989.
- Arin Ayphassorho, E. Jorge, “El legado de los inmigrantes. Vida institucional de los Centros Vascos del Uruguay 1876-1998”, *Euskaldunak Munduan – Los vascos en el Mundo*, 1. alea, 85-185. orr., Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 2000.
- Astigarraga Larrañaga, Andoni de (Astilarra), “Prensa vasca en América”, *Euzkadi*, 223. zkia., Bilbo, apirilak 2, 1981.
- Astigarraga Larrañaga, Andoni de (Astilarra), “Libros y folletos sobre temática vasca publicados en Argentina”, *Boletín Bibliográfico de Estudios Vascos*, 6. zkia., 54-62. orr., Gasteiz, uztaila-iraila 1989.
- Aulestia Txakartegi, Gorka, *Erbesteko euskal literaturaren antologia*, J. A. Ascunce, Donostia, 1992.
- Aulestia Txakartegi, Gorka, “Euskaldunak Ameriketako Unibertsitateetan. Lehenengo zatia”, *Sesenta años después. Euskal Erbestearen Kultura*, 255-280. orr., Hamaika Bide Elkarte, Donostia, 2000.
- A Valle-Arce, Juan Bautista, “Los intelectuales vascos en el exilio”, *Sesenta años después. Euskal Erbestearen Kultura*, 157-166. orr., Hamaika Bide Elkarte, Donostia, 2000.
- Dreyfus-Armand, Geneviève, “El exilio vasco: la actividad cultural de los exiliados del 39 en Francia”, *Sesenta años después. Euskal Erbestearen Kultura*, 247-254. orr., Hamaika Bide Elkarte, Donostia, 2000.
- *Gernika, Cahiers de Culture Humaniste Basque. Donibane Lohitzune, 1948-1953*. Faksimile-edizioa, Ediciones Vascas, Donostia, 1979.
- Intxausti, J., “Euzko Gogoaren lankideak”, *Iakin*, 12.zkia., Donostia, urria-abendua, 1979.
- Intxausti, J., “Zaitegi eta Euzko Gogoa. Hamar urteko lana (1950-1959)”. *Iakin*, 13. zkia. Donostia, urtarrila-martxoa, 1980.
- Irujo Ametzaga, Xabier, *Bingen Ametzaga Aresti. Gutunak I (1941-1968)*, Utriusque Vasconiae, Donostia/San Sebastián, 2009.
- Irujo Ametzaga, Xabier, *Bingen Ametzaga Arestiri egindako gutunak II (1939-1969)*, Utriusque Vasconiae, Donostia/San Sebastián, 2009.
- Irujo Ametzaga, Xabier, *Itzulpena erbestean*, Utriusque Vasconiae, Donostia/San Sebastián, 2009.
- Irujo Ametzaga, Xabier, *Homo Spelens*, Utriusque Vasconiae, Donostia/San Sebastián, 2009.
- Irujo Ametzaga, Xabier, “Erbesteko Eusko Jaurlaritzak Parisko Marceau kaleko egoitzan finkatutako politika kulturalako ildo nagusiak (1938-1940)”, Muñoz, Edurne (Ed.), *Jose Antonio Agirre: proiektu kultural bat = José Antonio Aguirre: un proyecto cultural*, pp. 77-91, Saturraran, Donostia, 2007.
- Irujo Ametzaga, Xabier; Irigoyen Artetxe, Alberto, *La Sociedad de Confraternidad Vasca Euskal Erria de Montevideo*, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Salamanca, 2007.

- Irujo Ametzaga, Xabier; Irigoyen Artetxe, Alberto, *La hora vasca del Uruguay. Génesis y desarrollo del nacionalismo vasco en Uruguay (1825-1960)*, Sociedad de Confraternidad Vasca Euskal Erria, Montevideo, Uruguay, 2006.
- Irujo Ametzaga, Xabier, *Euskal erbeste politikoa Uruguain (1943-1955). Eusko jaurlaritzaren administrazioa eta kanpo ekintza atzerrian*, Instituto Vasco de Administración Pública/Institute for Public Administration of the Basque Government, Oñati, 2005.
- Irujo Olo, Andrés (A. de Lizarra ezizenez sinaturik), “Euskal Erria, 1912-1987”, *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*, XXXIX. urtea, XXXIV. alea, 153. zkia., 96. orr., 1988.
- Irujo Olo, Andrés (A. de Lizarra ezizenez sinaturik), “Euskal Erria de Montevideo II”, *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*, XXXIX. urtea, XXXIX. alea, 154. zkia., 141-144. orr., 1988.
- Irujo Olo, Andrés, “Euskal Erria de Montevideo III”, *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*, XXXX. urtea, XL. alea, 156. zkia., 45-47. orr., 1989.
- *La cultura del exilio vasco I. Pensamiento y creación literaria*, J. A. Ascunce, 237-284. orr., Donostia, 1994.
- *La cultura del exilio vasco II. Prensa-periodismo, hemerografía, editoriales, traducción, educación-universidad*, J. A. Ascunce, 116-123. orr., Donostia, 1994.
- Larrea, Txema, *Kultura eta politika herbeste aldiko euskal nazionalismoan, 1949-1959. 1956ko belaunaldiaren hausdura*, Argitaratu gabeko ikerketa lana.
- Llera, Luis de, “Pensamiento vasco en el exilio”, *Sesenta años después. Euskal Erbestearen Kultura*, 365-388. orr., Hamaika Bide Elkarte, Donostia, 2000.
- San Miguel Casillas, María Luisa, “EKIN: la aventura editorialista del exilio vasco”, *Sesenta años después. Euskal Erbestearen Kultura*, 389-404. orr., Hamaika Bide Elkarte, Donostia, 2000.
- Santamaría García, Mari Carmen, “El exilio vasco y la bibliografía”, *Sesenta años después. Euskal Erbestearen Kultura*, 405-448. orr., Hamaika Bide Elkarte, Donostia, 2000.
- Sebastián García, Lorenzo, *Entre el deseo y la realidad. La gestión de Departamento de Cultura del Gobierno Provisional de Euzkadi (1936-1937)*, IVAP, Oñati, 1994.
- Sudupe, Pako, “Euskal kultura gerraondoko minean”, *Sesenta años después. Euskal Erbestearen Kultura*, 225-246. orr., Hamaika Bide Elkarte, Donostia, 2000.
- Velez de Mendizabal, Jose Mari, *Iokin Zaitegi*, Arrasate, 1981.
- Xarriton, Piarres, *J. M. Moulier “Oxobi”*, Bidegileak kaierak, 2. zkia., Jaurlaritzako Lehendakartzaren Idazkaritza, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia, Gasteiz, 1994.
- Zabala, Enrike, *Euskal literatura*, Pax argitaletxea, Lazkao, 1981.
- Zabala, Ramón de, “Relación de revistas del exilio vasco (1936-1960)”, *La cultura del exilio vasco II. Prensa-periodismo, hemerografía, editoriales, traducción, educación-universidad*, J. A. Ascunce, 116-123. orr., Donostia, 1994.